***894 Foru Agindua, 2012ko uztailaren 5ekoa, Mañariko Markomin Goikoa harrobiko Plan Bereziaren ingurumen ebaluazioa egiteko erreferentziazko agiria egitea ebazten duena.***

***Orden Foral nº 894 de 5 de julio de 2.012 por la que se resuelve formular el Documento de Referencia para la evaluación ambiental del Plan Especial de la cantera "Markomin-goikoa" en Mañaria.***

## 1.- AURREKARIAK

EAEko ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeko I A) eranskineko ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko planen zerrendaren eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 3. artikuluaren arabera, administrazio prozedura horren mende ezarriko dira lurzoru urbanizaezina ukitzen duten plan bereziak.

2012ko martxoaren 6an, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ingurumenaren arloko iraunkortasunaren txostenaren hedapen eta xehetasun maila zehaztuko dituen erreferentzia agiria egiteko beharrezkoak diren tramiteak hasi zituen. Mañariko Udalak, horretarako, "**Mañariko Markomin Goikoa harrobiko Plan Bereziaren gaineko aurretiko kontsultak eskatzeko txostena**" izenburuko agiria igorri du, Grupo Amantegi enpresak egina.

Ingurumenaren arloko iraunkortasunaren txostenaren hedapen, xehetasun eta zehaztasun maila zehazteko, erreferentzia agiri hau idatzi da, Ingurumenean zenbait planek eta programek dituzten ondorioak ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikuluak ezartzen duen

## 1.- ANTECEDENTES

De conformidad con el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, que establece la lista de planes sometidos al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, y de acuerdo asimismo, con el Artículo 3 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, serán sometidos a este procedimiento administrativo los Planes Especial que afecten al suelo no urbanizable.

Con fecha 6 de marzo de 2.012 se da inicio en esta Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia a los trámites necesarios para la emisión del documento de referencia que determine la amplitud y el nivel de detalle del informe de sostenibilidad ambiental. Para ello el Ayuntamiento de **Mañaria ha remitido el documento titulado "Informe de solicitud de consultas previas al Plan Especial de la cantera Markomin-goikoa en Mañaria**", elaborado por la empresa Grupo Amantegi.

Para determinar la amplitud, nivel de detalle y el grado de especificación del Informe de Sostenibilidad se redacta el presente Documento de Referencia, según establece el Artículo 9 de la Ley 9/2.006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y

bezala, eraginpeko herri administrazioen eta interesdunen identifikazioa eta kontsulta izapidetu ondoren.

programas sobre el medio ambiente previa identificación y consulta a las administraciones públicas afectadas y público interesado.

## 2.- EGINDAKO KONTSULTAK

## 2.- CONSULTAS REALIZADAS

Eskaria jasotakoan, Ingurumen Zuzendaritzak eraginpeko herri administrazioen eta interesdunen identifikazio eta kontsultaren tramitea hasi du. Honako erakunde eta entitate hauei egin zaie kontsulta:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.
- Mendi Zerbitzua. Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Abeltzaintza Zerbitzua. Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia
- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

Recibida la solicitud, la Dirección de Medio Ambiente inicia el trámite de identificación y consultas a las administraciones afectadas y al público interesado. Han sido consultados los siguientes organismos y entidades:

- Servicio de Patrimonio Natural de la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Servicio de Montes. Dirección General de Agricultura. Diputación Foral de Bizkaia.
- Servicio de Ganadería. Dirección General de Agricultura. Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Infraestructuras Viarias. Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Relaciones Municipales y Urbanismo. Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Cultura. Diputación Foral de Bizkaia
- Dirección de Desarrollo Rural y Litoral. Gobierno Vasco.
- Dirección de Planificación Ambiental. Gobierno Vasco.
- Dirección de Ordenación del Territorio. Gobierno Vasco.

| | |
|---|---|
| ▪ Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. | ▪ Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental. Gobierno Vasco. |
| ▪ Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. | ▪ Dirección de Calidad Ambiental. Gobierno Vasco. |
| ▪ Energia eta Meategien Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. | ▪ Dirección de Energía y Minas. Gobierno Vasco. |
| ▪ URA. Uraren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza. | ▪ URA Agencia Vasca del Agua. Gobierno Vasco. |
| ▪ Kantauriko Ur Konfederazioa. | ▪ Confederación Hidrográfica del Cantábrico. |
| ▪ Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. | ▪ Dirección de Atención de Emergencias. Gobierno Vasco. |
| ▪ Osasun Publikoaren Zuzendariordetza. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. | ▪ Subdirección de Salud Pública. Departamento de Sanidad. Gobierno Vasco. |
| ▪ IHOBE (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa). Eusko Jaurlaritza | ▪ IHOBE, Sociedad Pública de Gestión Ambiental. Gobierno Vasco |
| ▪ EEE, Energiaren Euskal Erakundea. | ▪ EVE, Ente Vasco de la Energía. |
| ▪ Kultura Saila. Euskal Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza. | ▪ Departamento de Cultura. Centro de Patrimonio Cultural Vasco. Gobierno Vasco. |
| ▪ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa. | ▪ Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia. |
| ▪ Urkiolako Lan Garapenerako Elkartea. | ▪ Asociación de Desarrollo Rural Urkiola. |
| ▪ IZATE Ingurumen Elkartea. | ▪ Asociación Medioambiental IZATE. |
| ▪ ENBATA - Natura Ingurunea Aztertzeko Elkartea. | ▪ Sociedad de Estudios del Medio Natural ENBATA. |
| ▪ Bizkaiko Mendi Federazioa. | ▪ Federación Vizcaína de Montaña. |
| ▪ Bizkaiko Espeleologia Federazioa. | ▪ Bizkaiko Espeleologia Federazioa. |
| ▪ EHNE. | ▪ EHNE. |

- ENBA.

Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legearen 9. artikuluan ezarritakoari dagokionez, aurreko zerrendan daudenak ukitutako administrazio publikotzat joko dira, lege horren 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ingurumen-izapideari ekiteko egin den dokumentua administrazio publiko interesdunei eta publiko interesdunari kontsultak bideratzeko erabili da. Halaber, agiri hori www.bizkaia.net web-orrian eman da argitara helburu berarekin, hau da, gai honen inguruan zerikusia duten herri administrazioak eta interesa duen jendea identifikatzeko, Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten eraginen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak ezartzen duena betez.

Lehenago aipatutako 183/2003 Dekretuan erabakitako epean, honako erakunde hauen erantzunak jaso dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak txostena egin du espezie mehatxatuei, espezie inbaditzaileei eta eremu babestuei buruz. Bertan, Plan Berezian kontuan hartu beharreko lau ingurumen-irizpide estrategiko aipatzen dira: inguruko BILen babesa, Urkiolako Parke Naturalaren babesa, “Ibaizabal ibaiaren goiko arroak” bisoi europarraren interes bereziko eremuaren babesa, eta sai zuriak habia egiten duen eremuen babesa. Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legea aldatzen duen 1/2010 Legearen edukia gogorarazten da. Urkiolako Parke Naturalaren barruan kalitate

- ENBA.

A los efectos de lo previsto en el Artículo 9 de la Ley 9/2.006 sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, quedan identificados los anteriores como administraciones públicas afectadas a considerar según lo dispuesto en el Artículo 10 de dicha Ley.

El documento elaborado para el inicio del trámite ambiental, ha sido el utilizado para evacuar consultas a las Administraciones Públicas interesadas y al público interesado. Asimismo el documento ha sido publicado en www.bizkaia.net, con el mismo fin, de identificar a las administraciones públicas afectadas y al público interesado, de acuerdo con el contenido de la Ley 9/2.006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente.

Finalizado el plazo estipulado en el citado Decreto 183/2003, han sido recibidas las respuestas de las siguientes entidades:

- El Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia informa acerca de las especies amenazadas, especies invasoras y espacios protegidos. Lista cuatro criterios ambientales estratégicos a considerar en el Plan especial: protección de los LICs existentes en la zona, protección del PN de Urkiola, protección del Área de Interés especial del visón europeo “cabeceras del Ibaizabal” y protección de las áreas de nidificación del alimoche. Recuerda el contendido de la Ley 1/2.010 de modificación de la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del

akustikoaren arloko helburuek, txosten horren arabera, ez dituzte gainditu behar Zaratari buruzko Legea garatzen duen 1.367/2007 Errege Dekretuaren arabera e) eremu akustikoetarako ezarritako mailak, hau da, Ld 60, Le 60 eta Ln 50, eta harrobiaren esparrua lehentasunez industriarako erabilera duen eremu akustikoa izan behar litzateke, lehendik dituen industria erabilerengatik (hormigoi lantegia). Eskatzen da azterlan akustikoa egin dadila harrobiari eta Urkiolako Parke Naturaleko eremu babestuan duen eraginari buruz. Adierazten da Mañaria ibaia, planaren esparrua eta planaren eraginpeko eremua zeharkatzen dituen tartean, Bizkaian bisoi europarra kudeatzeko planean definitutako interes bereziko eremuaren barruan dagoela, eta espezie horren habitata hobetzearren planean kontuan hartu beharko diren jarduketa batzuk proposatzen eta eskatzen dira. Intereseko beste espezie batzuen gaineko informazioa ere ematen da, planaren eraginei buruzko informazioa eta balorazioa erantsi dadin espezie horiei dagokienez (Mugarra mendian habia egiten duen sai zuria, eta kiropteroak). Planak Urkiolako BILean izango duen eraginaren ebaluazio zuzena egin behar dela adierazten da. Eskatzen da, azkenik, kanpoko landare espezie inbaditzaileek sor ditzaketen arazoak azter daitezela ingurumen eraginaren baterako ebaluaziorako azterlanean.

País Vasco. Considera que los objetivos de calidad acústica en el ámbito del PN de Urkiola no deben ser superiores a los establecidos para tipos de áreas acústicas e) según el RD 1.367/2.007, que desarrolla Ley del Ruido, es decir, Ld 60, Le 60 y Ln 50 y considera que el ámbito de la cantera debiera ser un tipo de área acústica de uso preferente industrial, por los usos industriales presentes (planta de hormigón). Solicita que se haga un estudio acústico de la cantera y su afección al espacio protegido del PN de Urkiola. Informa de que el río Mañaria, a su paso por el ámbito del plan y zona de influencia, se incluye dentro del Área de Interés Especial definida en el plan de gestión del visón europeo en Bizkaia y propone y solicita una serie de actuaciones a considerar en el plan para mejorar el hábitat de la especie. Incluye información acerca de otras especies de interés sobre la cuales se deberá incluir información y valoración de los efectos del plan: alimoche, que nidifica en el monte Mugarra y los quirópteros. Determina que deberá realizarse una correcta evaluación de los efectos del Plan Especial sobre el LIC Urkiola. Finalmente solicita que el estudio de ECIA analice la problemática que se puede derivar de la presencia de flora alóctona invasora.

- Energiaren Euskal Erakundeak adierazi du bere jarduketa eremuan ez dagoela ukipenik.

- El Ente Vasco de la Energía considera que en su ámbito de actuación no existen afecciones.

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren Zuzendariordetzak adierazi du harrobiko jarduerak ez

- La Subdirección de Salud Pública del Gobierno Vasco informa que la actividad de la cantera no deberá

duela inolako eraginik izan behar inguruan dauden hornidura putzuetako (Mañaria A eta Mañaria B) uraren kalitatean.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Zuzendaritza nagusiak gogora ekarri du Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Arauan ezarritakoa: erabilerei buruzkoa, eta eraikuntzetatik errepideetako jabari publikoko eremuraino utzi behar den tarteari buruzkoa. Harrobiaren ustiapenak errepidea ukitu ez dezala eskatu du. Harrobiko sarbideak biribilgune berritik egin beharko dira. Materialak metatzeko eremuaren iparraldetik datorren sarbidea kendu egin beharko da.

- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak adierazi du ez dela eraginik izango nekazaritzako lurretan.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du ez dagoela jasorik planaren ingurunean kultura ondareko elementurik dagoenik, baina litekeena dela orain arte aurkitu gabeko elementuren bat egotea.

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak adierazi du Durangaldeko ur hornidurarako bi putzu daudela inguruetan, Harrobia I eta Harrobia II, eta eskatu du akuiferoko uraren kalitatea zaintzeko neurri egokiak har daitezela harrobiaren ustiapenean. Saneamenduaren arloan, eskualdeko kolektorearen trazadurari buruzko informazioa eman du eta gogora ekarri du eraikuntza eta instalazioetatik zenbateko tarteak utzi behar diren

afectar en ningún caso a la calidad de las aguas de los pozos de abastecimiento existentes en la zona (Mañaria A y Mañaria B).

- La Dirección General de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Bizkaia recuerda las determinaciones de la Norma Foral de Carreteras de Bizkaia respecto a los usos y distancia edificatorias al dominio público de carreteras. Solicita que la explotación de la cantera no afecte a la carretera. La accesibilidad a la cantera se deberá efectuar desde la nueva rotonda. El acceso desde el norte de la zona de acopios deberá eliminarse.

- La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco informa que no se prevén afecciones sobre el suelo agrario.

- La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco informa que no tiene constancia de la existencia en el entorno del plan de elementos del patrimonio cultural aunque podrían existir elementos no detectados hasta el momento.

- El Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia informa de la presencia de dos pozos de abastecimiento a la comarca del Duranguesado, Harrobia I y Harrobia II, solicitando la adopción de las medidas adecuadas en la explotación de la cantera para no afectar a la calidad de las aguas del acuífero. En materia de saneamiento aporta información acerca del trazado del colector comarcal, recuerda los retiros que

trazadura horretaraino, eta isurketei buruzko araudian ezarritako mugak bete behar direla kolektorera egiten diren isurketetan.

deben mantenerse a éste en cuanto a edificaciones e instalaciones y la necesidad de que los vertidos al mismo deben cumplir con los límites establecidos en el reglamento de vertidos.

- Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzak informazioa eman du “Hijos de León Amantegui S.A” enpresaren kontzesioaren mugei buruz eta ustiapenerako baimendutako perimetroari buruz.

- La Dirección de Energía y Minas del Gobierno Vasco aporta información sobre los límites de la concesión de la mercantil “Hijos de León Amantegui S.A” y del perímetro de la explotación autorizado.

- Eusko Jaurlaritzako Plangintza, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzak ìngurumenaren arloko hainbat lege-testu, plan eta programa aipatu ditu, eta esan du horien ingurumen-irizpideak eta -helburuak kontuan hartu behar direla, plana eta ingurumen eraginaren ebaluaziorako azterlana egiteko. Hona hemen irizpide horietako batzuk: biodibertsitatearen gaineko eragina ahalik eta txikiena izatea, paisaia planeamenduan txertatzea, biodibertsitate ekologikoaren galera gelditzea, pasabide ekologikoen funtzionalitatea bermatzea, eta eremua urpean geratzeko arriskua aintzat hartzea. Goragoko mailako hainbat plan eta programa aipatu ditu, plana bera eta ebaluazioa egiterakoan aztertu behar direnak.

- La Dirección de Planificación, Evaluación y Control Ambiental del Gobierno Vasco hace referencia a diversos textos legales y planes y programas de carácter ambiental cuyos criterios y objetivos ambientales deben tenerse en cuenta para la elaboración del plan y del estudio de evaluación de impacto ambiental. Entre estos criterios están minimizar la afección a la biodiversidad e integrar el factor paisaje en el planeamiento, detener la pérdida de biodiversidad ecológica, asegurar la funcionalidad de los corredores ecológicos y considerar el riesgo de inundabilidad de la zona. Hace referencia a diversos planes y programas de orden superior que deben analizarse en la redacción y evaluación del plan.

- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak eskatu du ingurumen eraginaren ebaluaziorako baterako azterlanean aztertu egin dadila “Urkiola” BILaren kontserbazio-helburuen gaineko eragina. Harrobiko mugak Urkiolako Parke Naturalaren ertz batetik parke barrura sartzen direla uste du. Plan

- La Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental de Gobierno Vasco solicita que en el estudio de ECIA se analice la afección sobre los objetivos de conservación del LIC “Urkiola”. Considera que los límites de la cantera se introducen de manera marginal dentro del límite del parque Natural de Urkiola. Informa de la presencia dentro del perímetro del

Bereziaren eremuaren barruan intereseko landare formazioak badaudela eta horiek zenbait kasutan Europar Batasunaren intereseko habitatak direla ohartarazi du. Uste du formazio horiek zaindu eta babestu egin behar direla, eta horretarako, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioko azterlanean identifikatu egin beharko dira eta behar diren zuzenketa eta babes neurriak proposatu. Florari dagokionez, adierazi du ez dagoela, eurek dakitenez, harrobiaren eremuan landare espezie mehatxaturik. Hori bai, harrobitik hurbil badaude animalia espezie katalogatuak eta horien artean basoko haragijaleak eta hegazti harrapariak nabarmentzen dira. Gogora ekarri du Mañaria ibaia interes bereziko eremua dela bisoi europarrarentzat, espezie hori Bizkaian kudeatzeko planaren arabera. Gogora ekarri du EAEko pasabide ekologikoen sareko leuntze-eremu batean dagoela harrobia, hain zuzen ere "lehengoratze ekologikorako eremu" batean. Ingurumen eraginaren baterako ebaluaziorako azterlanean informazioa eman dadila eta harrobiak paisaian duen eragina zuzentzeko neurriak justifikatu daitezela eskatu du.

- URA - Uraren Agentziak gogorarazi du berak txosten bat eman zuela, 2005. urtean egindako izapidean, Markomin Goikoa harrobiko Plan Berezi honen ingurumen ebaluazioari buruz, eta beraren iritziz oraindik ere indarrean dagoela. Txosten hori eranskin gisa igorri du. Uholde arriskuari dagokionez, eskatu du inguruko topografia berria egin dadila eta aparteko uholdeak izateko arriskua kalkulatu dadila, gaur egun metaturik

Plan Especial de formaciones vegetales de interés que en algunos casos conforman hábitats de interés comunitario. Considera que estas formaciones deben mantenerse y preservarse, para lo cual el estudio de ECIA deberá identificarlas y proponer las medidas correctoras y protectoras necesarias. Respecto a la flora informa de que no tienen constancia de presencia de flora amenazada en el ámbito de la cantera. Sí que hay presencia cercana de especies de fauna catalogada destacando los carnívoros forestales y las rapaces. Recuerda la consideración del río Mañaria como Área de Interés Especial para el visón europeo según el plan de gestión de la especie en Bizkaia. Recuerda que la cantera se ubica en una zona de amortiguación de la red de corredores ecológicos de la CAPV identificada como "área de restauración ecológica". Solicita que el estudio de ECIA aporte información y justifique las medidas correctoras respecto de la afección de la cantera sobre el paisaje.

- La Agencia Vasca del Agua URA recuerda la emisión de un informe por su parte en el trámite efectuado en el año 2.005 sobre la evaluación ambiental de este Plan especial de la cantera Markomin Goikoa, informe que se remite como Anexo y que considera que sigue teniendo vigencia. Respecto a la inundabilidad, pide que se haga un nuevo alzamiento topográfico de la zona y calcular la situación de riesgo

dauden materialak kenduta eremuak izango duen uholde arriskua aztertzeaz gainera. “Lurzorua erabiltzeko irizpideak uholde arriskuaren arabera” izeneko agiria erantsi du. Uste du 100 urtean behingo uholdearen eremuaren mugan kokatu behar dela materialak metatzeko instalazioaren eta errekaren arteko gutxieneko tartearen lerroa, eta hori argi zehaztu behar dela Plan Berezian; betiere, ezertan eragotzi gabe EAEko ibai eta erreka ertzen Lurralde Plan Sektorialean ezarritako tarteen aplikazioa. Eskatu du erreka ertzeko basoa lehengoratu dadila ur jabari publikoko zortasun zerrenda osoan, eta baso horrek 10 metroko zabalerako zerrenda har dezala gomendatu du. Gomendatu du, halaber, akuiferoko ura drainatzen duten Mañaria ibaiaren adarren gaineko estaldurak kentzeko aukera azter dadila.

ante posibles avenidas extraordinarias además de analizar la inundabilidad del ámbito sin los acopios existentes. Adjunta los “Criterios de uso del suelo en función de su inundabilidad”. Considera que la línea que delimita la avenida de la T=100 años, debe ser la línea de retiro mínimo para la instalación de acopios, debiéndose definir claramente en el Plan Especial, todo ello sin perjuicio de la aplicación de los retiros establecidos en el PTS de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV. Pide que se restituya el bosque de ribera en toda la franja de servidumbre del dominio público hidráulico, recomendando que se extienda hasta los 10 metros de anchura. Recomienda también que se valore la retirada de las coberturas sobre afluentes del Mañaria que drenan las aguas del acuífero.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak adierazi du ez dagoela ez arkitektura ondareko elementu higigarri edo higiezinik ezta ondare arkeologikoko elementurik ere, kalifikatutako kultur ondasunaren deklarazioa duenik.

- El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia informa que no existente elementos del patrimonio arquitectónico mueble e inmueble, así como del patrimonio arqueológico que cuenten con declaración de bien cultural calificado.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eskatu du ingurumen eraginaren azterlanean kontuan har daitezela onura publikoko mendiak, baso ekosistemak, 11/1997 Foru Arauan aipatutako espezieak, erreka ertzeko basoak eta basabideen sarea.

- El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia pide que en el estudio de impacto ambiental se tengan en cuenta los montes de Utilidad Pública, los ecosistemas forestales, lasa especies incluidas en la Norma Foral 11/1997, los bosques de ribera y la red de caminos forestales.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak informazioa eman du lurra kutsa dezaketen jarduerak

- La Sociedad Pública de gestión Ambiental IHOBE informa de las parcelas incluidas en el Inventario de

dituzten edo inoiz izan dituzten lurzoruen inbentarioan saNrtutako lurzatiei buruz, eta inbentario horren gaineko informazio berrikusia eta eguneratua ere eman du. Horrelako bi lurzati daude Plan Bereziaren eremuan. Adierazi du ez dela lurzoruaren kalitatearen deklarazioa abian jarri beharrik izango, ingurumen organoaren irizpideen arabera.

suelos que soportan o han soportado actividades potencialmente contaminantes del suelo así como de la información revisada y actualizada de este Inventario. En el ámbito del Plan Especial recaen dos parcelas. Informa que según los criterios del Órgano Ambiental no será necesario iniciar la declaración de la calidad del suelo.

Halaber, interesdunak identifikatzeko ezarritako epean bi idazki jaso dira, M.I. Ortuostek eta J.R. Beitiak sinatutakoak, M.I. Ortuostek bere idazkian zenbait gogoeta egiten ditu harrobia ustiatzeko proiektuaz eta bere jabetzako ondasunetan eta ingurumenean proiektu horrek duen eraginaz, eta plan berezi honen xede ez den Mutxate harrobiaren ustiapenari buruzko oharrak ere egin ditu. Hainbat ondorio aipatu ditu: zarata, hautsa, harri-jausiak, eta jasan behar dituen bibrazioak. Eragin horiek zaratari eta airearen kalitateari buruzko ingurumen-legeria urratzen ari direla uste du.

Asimismo en el plazo abierto para identificar a las personas interesadas se han recibido dos escritos, firmados por M.I. Ortuoste y por J.R. Beitia. En el escrito de M.I. Ortuoste se hacen una serie de consideraciones acerca del proyecto de explotación de la cantera y de las afecciones que produce a sus propiedades, al medio ambiente, incluyendo también comentarios acerca de la explotación de la cantera Mutxate, que no es objeto de este Plan Especial. Hace referencia a afecciones en materia de ruido, presencia de polvo y caída de rocas, así como vibraciones que soporta. Considera que las citadas afecciones están vulnerando legislación ambiental en materia de ruido y calidad del aire.

J.R. Beitiak, berriz, harrobiko jarduera sortzen ari den ondorio hauek aipatu ditu: hautsa, leherketen zarata, eta errepidearen gaineko ukipenak. Iradokizun batzuk egin ditu, Plan Berezian aintzat har daitezen: Mañariko herrigunera begira dagoen maldako artadi kantabrikoa errespetatzea, pistetan eta material biltegietan harrotzen den hautsaren eragina saihesteko neurri zuzentzaileak, errepidetik harrobirako sarbideak antolatzea, gurpilak garbitzea, zamak estaltzea, goiko zapaldak lehengoratzearen inguruko alderdiak, eta akuiferoa eta errekak ez kutsatzeko neurri zuzentzaileak. Onetsitako ustiapen eremuari muga zehatzak jartzeko eskatu

J.R. Beitia hace referencia a los impactos que está generando la actividad de la cantera relacionados con la emisión de polvo, ruidos por explosiones y afecciones a la carretera. Hace una serie de sugerencias para su consideración en el Plan Especial: respetar el encinar cantábrico de la ladera que da al núcleo de Mañaria, medidas correctoras para evitar la afección del polvo generado en pistas y acopios, ordenar los accesos desde la carretera, limpieza de ruedas, cubrición de cargas, aspectos referidos a la restauración de los bancos superiores y medidas correctoras respecto a la contaminación del acuífero y de los arroyos. Solicita una

du.

delimitación precisa de los límites de la explotación aprobada.

**Ingurumenean zenbait planek eta programek dituzten ondorioak ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikulua betetzeko, eraginpeko herri administrazio gisa galdera egin zaien erakundeak adierazi dira, eta txosten honen edukia publikoa dela jakinarazi da. Halaber, goian aipatutako pertsonak herritar interesdun gisa identifikatu dira.**

**En cumplimiento del mandato del artículo 9 de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de determinados planes y programas en el medio ambiente, quedan identificados como administraciones públicas afectadas los organismos consultados haciendo constar que el contenido del presente informe es público. Asimismo las personas anteriormente mencionadas quedan identificadas como público interesado.**

Aurrekari gisa aipatu behar da, horrez gainera, 2005eko uztailean izapideak egiten hasi zirela Markomin Goikoa harrobiko Plan Berezia egiteko, oraingo plan honen eremu berean, eta ingurumen eraginari buruzko atariko txostena ematera ere iritsi zela. Orduan egin zen kontsulta-tramitean hainbat administrazioren erantzunak jaso ziren, eta plan berezi honen ingurumen-tramiterako balio duen informazioa atera da haietatik. Informazio gehigarria ematen duten erantzunak erantsi dira: BFAren Kultura Sailarena (azterlan arkeologikoa egin beharra), Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritza, gaur egun URA - Uraren Euskal Agentzia (urguneei, geologiari eta abarrekoei buruzko informazioa), BFAko Mendi Zerbitzua (Urkiolako Parke Naturaleko mugarrien koordenatuak).

Como antecedente también debe mencionarse el trámite iniciado en julio de 2.005 para la redacción del Plan Especial de la cantera Markomin goikoa, en el mismo ámbito que el presente Plan, habiéndose llegado a emitir el informe Preliminar de Impacto Ambiental. En el trámite de consultas realizado en aquel momento se recibieron contestaciones de diferentes administraciones que aportaron información válida para el trámite ambiental de este Plan Especial. Se adjuntan aquellas que aportan información adicional: Departamento de Cultura de la DFB (necesidad de incorporar un estudio arqueológico), Dirección de Aguas del Gobierno Vasco, hoy URA-Agencia Vasca del Agua, (información sobre puntos de agua, geología, etc.), Servicio de Montes de la DFB (coordenadas de los mojones de deslinde del Parque Natural de Urkiola).

Aurkeztu diren agiriak eta 183/2003 Dekretuan ezarritako kontsulta-tramitean jaso diren erantzunak aztertu eta Mañariko udalerrira bisita egin ondoren, erreferentziazko agiri hau ematen da.

Una vez analizada la documentación aportada, así como el contenido de las respuestas recibidas durante el trámite de consultas establecido en el Decreto 183/2003 y girada visita al municipio de Mañaria, se emite el presente Documento

**3.- PLANEAN APLIKATZEKOAK DIREN INGURUMENARI LOTURIKO HELBURUAK ETA IRAUNKORTASUN PRINTZIPIOAK**

Markomin Goikoa harrobiko Plan Berezia eta horren ingurumen ebaluazioa egiteko oinarri nagusitzat hartuko dira honako hauetan jasorik dauden iraunkortasun printzipioak eta ingurumen helburuak:

a) Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenari buruzko Esparru Programa 2011-2014.

c) Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia 21 Programa.

d) 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzkoa.

e) 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Babestekoa, eta haren aldaketak.

f) 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

g) 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

h) Legegintzako 2/2008 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruaren Legearen testu bategina onesten duena.

i) 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.

j) 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, nekazaritzako eta elikagaigintzako

de Referencia.

**3.- PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD Y OBJETIVOS AMBIENTALES APLICABLES AL PLAN.**

Se tomarán como base fundamental para la elaboración del Plan Especial de la cantera Markomin Goikoa y su evaluación ambiental los principios de sostenibilidad y objetivos ambientales contenidos en:

a) La Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020.

b) El Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2011-2014.

c) El Programa Bizkaia 21 de la Diputación Foral de Bizkaia.

d) La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

e) La Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco y sus modificaciones.

f) La Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

g) La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

h) El Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo.

i) La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

j) La Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de

politikari buruzkoa.

k) Euskal Kulturaren Ondarearen 7/1990 Legea.

l) 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa.

***3.1.- Ingurumen irizpide estrategikoak eta iraunkortasun printzipioak***

Kontsultetarako igorritako dokumentuan ez da planaren eremua antolatzeko ordezko aukerarik aurkeztu, ezta harrobia ustiatzeko proiektuan ezarritakoaz bestelako mugaketarik ere. Plan bereziaren eremuaren antolamendua eta ingurumen eraginaren azterlana egiteko, ingurumen irizpide estrategiko hauek aplikatu behar dira.

- Aldaketaren eremuko ingurumen balioei kalte gutxien egiten dien aukera lehenetsiko da. Irizpide gisa, aintzat hartu beharko da babestu egin behar direla Urkiolako BILa eta Parke Naturala, “Ibaizabal ibaiaren goiko arroak” bisoi europarrarentzako interes bereziko eremua, eta sai zuriak habia egiten duen lekuak.

- Eremua egokiro antolatu beharko da, uholdeei lotutako arriskuak ahalik gehien murriztuz, batez ere gaur egun harrobiko materialak metaturik dauden aldean.

- Zarataren aldagaia erantsi behar zaio planaren eremuaren barne antolamenduaren definizioari. Harrobiko jarduera zarata iturria da, eta badu eragina harrobiaren inguruetan. Plan Berezian eta ingurumen eraginaren azterlanean baloratu egin beharko da inguruabar

Política Agraria y Alimentaria.

k) La Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco.

l) La Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido.

***3.1- Criterios ambientales estratégicos y principios de sostenibilidad***

En el documento remitido para consultas no se plantean alternativas de ordenación del ámbito del plan, ni una delimitación diferente a la definida en el proyecto de explotación de la cantera. La ordenación del ámbito del plan especial y el estudio de impacto ambiental deben realizarse aplicando los siguientes criterios ambientales estratégicos.

- Se priorizará aquella alternativa que implique una menor afección a los valores ambientales del ámbito de la modificación. Se deberán considerar como criterios la protección del LIC y Parque Natural de Urkiola, del Área de Interés especial para el visón europeo “cabeceras del Ibaizabal” y protección de los lugares de nidificación del alimoche.

- Se deberá ordenar el ámbito de manera que se minimicen los riesgos asociados a inundabilidad, en especial el ámbito donde se ubican actualmente los acúmulos de materiales de la cantera.

- Incluir la variable acústica en la definición de la ordenación interna del ámbito del plan. La actividad de la cantera constituye un emisor acústico, con incidencia en el espacio circundante a la misma. El Plan Especial y estudio de impacto ambiental deberán valorar esta

hori, eta barne antolamendu egokia proposatu, eremutik kanpo ahalik eta zarata gutxien egotea ahalbidetuko duena. Plan Bereziaren esparrua eremu akustiko bati atxiki beharko zaio. Zona akustikoen definizioa ematen da Zaratari buruzko 37/2003 Legean eta Zona akustikoei, kalitate helburuei eta zarata emisioari buruzko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan (5. artikulua, V. eranskina). Lurzoru urbanizaezina den arren, Plan Bereziaren esparruan ematen zaizkion erabilerak direla-eta, badirudi egokiena litzatekeela b) motako eremu bati atxikitzea (industria erabilera duten lurraldeko sektoreak).

cuestión planteando una ordenación interna que permita minimizar, dentro de lo posible, la emisión de ruido al exterior del ámbito. El ámbito del Plan Especial se deberá adscribir a un área acústica según se definen éstas en la Ley 37/2.003 del Ruido y en el Real Decreto 1367/2.007 (Artículo 5, Anexo V), de 19 de octubre, sobre zonificación acústica, objetivos de calidad y emisión acústica. Aún cuando se trata de un suelo no urbanizable, dados los usos que se dan en el ámbito del Plan Especial parece que lo más adecuado sería adscribirlo a un Área de tipo b) sectores del territorio con de uso industrial.

- Harrobiko erabileren antolamenduan ahalik eta gehien murriztu behar dira akuiferoaren kutsadurari lotutako arriskuak eta, batez ere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren aprobetxamendurako zundaketei lotutakoak.

- La ordenación de los usos en la cantera debe minimizar los riesgos asociados a la contaminación del acuífero y especialmente a lo sondeos de aprovechamiento del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia.

- Kontuan hartu beharko da lurzorua kutsatu egin litekeela harrobiko erabileren ondorioz (esate baterako, lurpeko erregai biltegiak, mekanika lantegiak etab.).

- Se deberá considerar la potencial contaminación del suelo generada por usos que se realizan en la cantera, como por ejemplo el almacenamiento enterrado de combustibles, talleres mecánicos, etc.

- Ingurumen irizpide gisa, kontuan hartu beharko da lurrazaleko urak ahalik gutxien kutsatu behar direla. Horretarako, behar adina leku gorde beharko da dekantazio eta arazte sistemak ezartzeko, eta sistema horiek behar besteko tamaina izango dute. Irizpide orokor gisa, komunetako hondakin urak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorera bideratu beharko dira.

- Como criterio ambiental se deberá considerar la minimización de la contaminación de las aguas superficiales para lo cual se deberá reservar el espacio suficiente para implantar los sistemas decantadores y depuradores necesarios con el dimensionamiento suficiente. Como criterio general el vertido de aguas residuales sanitarias deberá conducirse al colector del Consorcio

de Aguas Bilbao-Bizkaia.

Kontuan hartu beharko da “0 aukera” ere, hau da, plan berezirik eta harrobiko eremuaren barne-antolamendurik ez egiteko aukera, eta horrek ingurumenean zer nolako ondorioak izango lituzkeen aztertu.

Deberá asimismo considerarse la “Alternativa 0” o de no redacción de un Plan Especial y no ordenación interna del ámbito de la cantera y qué consecuencias se podrían derivar en el medio ambiente de no hacerse.

Halaber, eta beren beregi hirigintzako plangintzarako, Arau Subsidiarioen berrikuspen partziala egitean oinarritzat hartu beharreko printzipioak dira honako artikuluetan ezarritakoak, gutxienez ere:

Asimismo y de manera específica para el planeamiento urbanístico deben ser principios inspiradores en la elaboración de la revisión parcial de las NNSS, al menos, los establecidos en los siguientes artículos:

1) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3. artikulua.

1) Artículo 3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

2) Lurzoruaren Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 20ko Legegintzako 2/2008 Errege Dekretuaren 2. eta 10. artikuluak.

2) Artículos 2 y 10 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Suelo.

3) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikuluak.

3) Artículos 10, 23, 25, 28, 30, 69 y 83 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

4) Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 2. artikulua.

4) Artículo 2 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

5) Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua.

5) Artículo 2 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

6) Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 3. artikulua.

6) Artículo 3 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

7) Mendiei buruzko 3/1994 Foru Arauaren 9. artikulua.

7) Artículo 9 de la Norma Foral 3/1994, de Montes.

8) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 6. eta 13. artikuluak.

8) Artículos 6 y 13 de la Ley 37/2.003, de 17 de noviembre, del Ruido.

Ingurumen-adierazle gisa EAEko ingurumen-adierazleen sistemak garatutakoak erabili ahal dira, hemen eskuragarri daudenak: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3352/es/contenidos/informacion/indicadores_ambientales/es_10183/sistema_indicadores.html edo Bizkaiko Udalerrietako Iraunkortasunaren Adierazleen Sistema, hemen eskuragarri dagoena: http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=676, Plan Berezia eta bere ebaluazioa idazteko erabilgarri izan daitezkeena, hori ingurumen eraginaren azterlanean baloratu beharreko alderdia dela.

### *3.2.- Ingurumen-helburuak.*

Igorritako agirian ez da beren beregi aipatzen planaren diseinuan kontuan hartu beharreko ingurumen helburu bakar bat ere, eta helburu horiek berariaz azaldu beharko dira.

Markomin Goikoa harrobiko Plan Berezia ingurumen arloko helburu orokor hauei egokitu behar zaie:

- Giroaren kalitatea, bizi-inguru osasungarria: gozatzeko gunea lortzea, kutsadurari lotutako arriskuak saihestea (lurzorua, ura, airea) eta inguru-zaratak ongizateari kalte egin diezaiola eragoztea. Harrobiko zarataren eragina kontuan hartzea.

- Lur azpiko nahiz azaleko ur masen egoera ekologiko ona lortzea: Mañaria ibaiaren ertza lehengoratzea, akuiferoa kutsatzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko neurri zuzentzaileak ezartzea.

Como indicadores ambientales se pueden utilizar aquellos desarrollados por el sistema de indicadores ambientales de la CAPV, disponibles en http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3352/es/contenidos/informacion/indicadores_ambientales/es_10183/sistema_indicadores.html o el Sistema de Indicadores de sostenibilidad de los municipios de Bizkaia, disponible en http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=676, que puedan ser utilizables para la redacción del Plan Especial y su evaluación, aspecto a valorar en el estudio de impacto ambiental.

### *3.2.- Objetivos ambientales*

En el documento remitido no se hace mención de manera expresa a objetivos ambientales a considerar en el diseño del plan, cuestión que deberá recogerse explícitamente.

El Plan Especial de la cantera Markomin Goikoa deberá responder a los siguientes objetivos de carácter ambiental general:

- Calidad del medio, entorno vital saludable: obtener un espacio de disfrute, evitar los riesgos asociados a la contaminación (suelo, agua, aire) y evitar la afección al bienestar por el ruido ambiental. Considerar la afección de la emisión acústica de la cantera.

- Obtener el buen estado ecológico de las masas de agua tanto subterráneas como superficiales: restaurar la ribera del río Mañaria, implantar las medidas correctoras necesarias para minimizar el riesgo de contaminación del

- Biodibertsitatea eta paisaia: inguruko animalia eta landare espezieen populazioen bideragarritasuna arriskuan ez jartzea. Arreta berezia jarri behar zaie Urkiolako BILeko populazioei, eta horiek kontserbatzeko neurriak zehaztu behar dira. Harrobiaren inguruetan dauden intereseko habitatak ez ukitzea, batez ere artadia.

- Ustiapen proiektuan ezarritako mugetatik harantzago, Urkiolako Parke Naturalean zuzeneko eraginik ez izatea. Ustiapen eremuaren mugak argi eta garbi zehaztea.

- Inguruko paisaiaren gaineko eragina arintzea: faseka lehengoratu beharreko eremuak jaso beharko dira plan berezian, eta lehengoratze horren ezaugarriak azaldu beharko dira.

- Ingurumen arriskuak murriztea, besteak beste uholdeak, arrisku geoteknikoak, etab. Mañaria ibaiak gainezka egitean urak har dezakeen eremuan ezartzen diren erabilerak uholde arriskuarekin bateragarriak izan beharko dira.

- Harrobiaren barruan eta inguru hurbilenean identifikatutako kultur ondarea ez ukitzea.

## 4.- INGURUMEN-INTERES BEREZIKO BALIABIDEAK ETA ESPAZIOAK ETA HORIEK BABESTEKO HELBURUAK.

Urkiolako mendiguneko Untzillaitz eta Mugarra mendien artean Mañaria ibaiak zulatu duen arroilaren ezkerreko ertzean

acuífero.

- Biodiversidad y Paisaje: no poner en riesgo la viabilidad de las poblaciones de especies de fauna y flora presentes en el entorno con especial atención a las poblaciones presentes en el LIC Urkiola y para las cuales se deben definir medidas para su conservación. No afección los hábitats de interés presentes en el entorno de la cantera, con especial mención al encinar.

- No afección directa al Parque Natural de Urkiola, más allá de los límites definidos en el proyecto de explotación. Definición clara de los límites máximos del la zona de explotación.

- Minimización de la afección paisajística del entorno: el plan especial deberá incluir los ámbitos de restauración por fases y características de la restauración prevista.

- Minimizar riesgos ambientales como inundaciones, riesgos geotécnicos, etc. Los usos previstos en la zona inundable por el río Mañaria deberán ser compatibles con el riesgo existente.

- No afectar al patrimonio cultural identificado en el interior y en el ámbito más cercano de la cantera.

## 4.- RECURSOS Y ESPACIOS DE ESPECIAL INTERÉS AMBIENTAL Y OBJETIVOS DE PROTECCIÓN.

La cantera Markomin goikoa se ubica en la margen izquierda del desfiladero que el río Mañaria ha labrado entre los montes

dago Markomin Goikoa harrobia.

Untzillaitz y Mugarra, pertenecientes al macizo montañoso de Urkiola.

Plan Berezian kontuan hartu beharko dira ondoko hauek:

En el Plan Especial se deberán tener en cuenta las siguientes cuestiones:

***4.1.- Paisaia***

***4.1.- Paisaje***

Harrobia Durangoko eta Mañariko ikus-arroen mugan dago. Arro horiek EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoan jasorik daude. Durangaldeko paisaiaren kalitatean eragin guztiz negatiboa du harrobiak, batez ere kontuan hartzen badugu Mañariko ikus-arroa bere kalitateagatik katalogatzeko proposatuta dagoela, eta, gainera, Urkiolako Parke Naturala ere katalogatzeko proposaturiko paisaia dela. Iraunkortasunari buruzko txostenean eragin larri hori baloratu beharko da, azterketa zehatzagoa eginez, EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoaren Aurreproiektuan dagoen informazioaz harantzago. Harrobiaren ikus-eremu osoaren azterketa erantsi beharko da. Horretarako beren beregi aztertu beharko da nola ikusten den harrobia hurbilen dauden populazioguneetatik (Mañariko herrigunea, Mañariko auzoak, Izurtzako herrigunea eta auzoak) eta jende asko ibiltzen den lekuetatik (Durangaldeko tontorrak, urrunago dauden Durangoko eta Iurretako hiriguneak, Urkiolako errepidea, AP-68 autobidea).

La cantera se ubica en el límite de dos cuencas visuales, la de Durango y la de Mañaria, así recogidas en el Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV. Supone una fuerte afección negativa a la calidad del paisaje de la comarca del Duranguesado, sobre todo tendiendo en cuenta que la cuenca visual Mañaria está propuesta para ser catalogada por su calidad y además el Parque Natural de Urkiola es también un paisaje propuesto para ser catalogado. El Informe de sostenibilidad deberá valorar esta afección, que se evidencia como elevada, incorporando un análisis de mayor detalle, más allá de la información del Anteproyecto del Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV. Se deberá incorporar un análisis de intervisibilidad de la cantera, un análisis específico de la visibilidad de la misma desde los lugares habitados más cercanos como el núcleo urbano de Mañaria, barrios de Mañaria, núcleo y barrios de Izurtza y desde lugares de alta frecuentación: cimas del Duranguesado, núcleos urbanos alejados: Durango, Iurreta, carretera de Urkiola, autopista AP-68.

Harrobiaren barne-antolamenduan kontuan hartu beharko da eragin hori, paisaiaren gaineko eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Hala, material pilak lehengo kokalekuaren ordez Mañaria ibaiaren ondoan kokatzeko proposamena ere baloratu behar da ikuspuntu horretatik, harrobiaren barruan morfologia edo

La ordenación interna de la cantera deberá tener en cuenta esta afección para, en la medida de lo posible, minimizar la afección sobre el paisaje. Así la propuesta de nueva ubicación de los acúmulos de materiales ubicados junto al río Mañaria debe ser valorada también desde el punto de vista de creación de nuevas

egitura berriak sortzearen ikuspuntutik alegia; bestalde, material horiek kentzeak parametro hori hobetzeko aukera ematen du. Lehengoratze jarduketak Planean jaso beharko dira.

### *4.2. Azaleko urak.*

Inguruko ur masak egoera ekologiko onean egon daitezen eta gehiago degradatu ez daitezen lortzea izango da ingurumen helburua. Harrobiaren eremuan Mañaria ibaiak duen egoera ekologikoari buruzko informazioa jaso beharko da iraunkortasunari buruzko txostenean. Gai horri buruzko azterlan bat aurkeztu zen 2006. urtean, “Mañaria ibaiaren (Bizkaia) egoera ekologikoari buruzko azterlana” izenburukoa, Anbiotek enpresak egina. Iraunkortasunari buruzko txostenean baloratu beharko da ea azterlan horrek indarrean jarraitzen duen edo eguneratu egin behar den.

Plan Berezian jaso beharko da Mañaria ibaiaren bazterreko lur zerrenda bat lehengoratu behar dela, eta zerrenda hori gutxienez 5 metroko zabal izango da, baina komeni da 10 metrokoa izatea, URA agentziaren txostenaren arabera. Lehengoratze jarduketa horrek mesede egingo dio galtzeko zorian dagoen bisoi europarraren habitatari. Horrela, bide batez erantzuna emango litzaioke Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honetako Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak adierazitakoari; hark eskatu baitu bisoi europarraren kudeaketarako planaren eremua (ur jabari publikoa gehi 5 metroko zabalerako zortasun zerrenda) lehengoratzea aurreikus dadila plan berezian. Zerrenda hori lehengoratzen denean betelanetako materialak kendu beharko dira, eta horrek murriztu egin lezake erreka bazterrak urpean geratzeko

morfologías o texturas en el interior de la cantera; por otra parte su retirada supone una oportunidad para la mejora de este parámetro. Las actuaciones de restauración deberán ser recogidas en el Plan.

### *4.2. Hidrología superficial.*

El objetivo ambiental a considerar es la consecución del buen estado ecológico y no degradación adicional, de las masas de agua del entorno. El Informe de Sostenibilidad deberá incluir información sobre el estado ecológico del río Mañaria en el ámbito de la cantera. En este sentido en el año 2.006 se presentó un estudio específico sobre esta cuestión denominado “Estudio del estado ecológico del río Mañaria (Bizkaia)”, elaborado por la empresa Anbiotek. El Informe de sostenibilidad deberá valorar si este estudio sigue teniendo hoy en día vigencia o es precisa su actualización.

El Plan Especial deberá contemplar una franja de restauración de la ribera del río Mañaria de, al menos, 5 metros de ancho, aunque es deseable que se extienda a los 10 metros, tal como informa URA. Esta actuación de restauración tendrá efectos positivos en el hábitat del visón europeo, especie en peligro de extinción, con lo que se daría respuesta también a lo indicado desde el Servicio de Patrimonio Natural de esta Dirección General de Medio Ambiente cuando se solicita que el plan contemple la restauración del ámbito del plan de gestión del visón europeo en la zona (Dominio Público Hidráulico más franja de 5 metros de servidumbre). La restauración de esta franja deberá contemplar la retirada de los rellenos efectuados en la misma, lo cual podrá acarrear una reducción del riesgo de inundación de las márgenes. El Plan

arriskua. Plan Bereziak lehengoratze horretarako irizpideak eta soluzioak zehaztu beharko ditu planaren eskalan, geroago proiektu batean zehaztu daitezen. Planean proiektua onetsi eta burutzeko epeak ezarriko dira. Plana onesten denetik urtebete igaro aurretik egin beharko da baimentzeko tramitea, ez bada atzerapena justifikatzen harrobiaren funtzionamenduari lotutako arrazoiengatik edo bidezko beste arrazoiren bategatik.

Especial deberá definir los criterios y soluciones para esta restauración a escala de Plan, para ser posteriormente definida en un proyecto. El Plan establecerá los plazos para la aprobación y ejecución del proyecto; el trámite autorizatorio no debe posponerse más de un año desde la aprobación del plan, a no ser que se justifique una mayor dilación por cuestiones de tipo funcional de la cantera u otras causas debidamente justificadas.

Instalazioen sarrerako dekantazio putzuaren eta Mañaria ibaiaren artean dagoen galeriaren trazadura Plan Bereziaren antolamendu planoetan jaso behar da. URA agentziak bere txostenean adierazi duenez, galeria horren estalkia kentzeko aukera baloratu beharko da planean eta iraunkortasunari buruzko txostenean.

El Plan Especial debe contemplar en sus planos de ordenación el trazado de la galería existente entre la balsa de decantación de la entrada a las instalaciones y el río Mañaria. Según establece URA en su informe, el Plan y el Informe de Sostenibilidad deberán valorar la eliminación de la cobertura de esta galería.

Euria egiten duenean lurraren azalean urak egiten dituen bide nagusiak marraztu beharko dira Plan Bereziaren informazio planoetan, eta egokiro kokatu beharko dira lehendik dauden dekantazio putzuak eta aurreikusten direnak. Drainatze bideak jaso beharko dira: bideetako arekak, material meten gaineko isurguneak, harrobiaren erdialdean dagoen hustubidea, bideari eusten dion harri lubetaren gaineko iturburua eta Mañaria ibaira doan jario lerroa.

El Plan Especial deberá dibujar, en los planos de información, las líneas de flujo superficial preferente que se crean en momentos de precipitaciones, ubicando las balsas de decantación existentes y las previstas. Se deberán recoger las líneas de drenaje formadas por cunetas de los viales, las zonas de flujo sobre los acúmulos, el sumidero existente en la zona intermedia de la cantera, la surgencia sobre le muro de escollera que contiene el vial y la línea de flujo que se dirige al río Mañaria.

Saneamendurako azpiegiturei dagokienez, planean kokatu egin beharko dira lehendik dagoen putzu septikoa eta bera kokatzeari edota handitzeari buruz egon daitezkeen aurreikuspenak. Iraunkortasunari buruzko txostenean zehaztu egin beharko da non kokatuko den planaren eremuko instalazioetako komunetako hondakin uren isurgunea, eta ur ibilgu hartzaileen egoera ekologikoari nola eragingo dion

Respecto a las infraestructuras de saneamiento el plan deberá ubicar la fosa séptica existente y las previsiones que puedan existir respecto a su ubicación y/o ampliación. El Informe de Sostenibilidad deberá ubicar el punto de vertido de las aguas residuales sanitarias generadas en las instalaciones del ámbito del plan y valorar su incidencia sobre el estado ecológico de los cauces receptores. Como

baloratu beharko da. Babes neurri gisa, Plan Berezian aurreikusi beharko da komunetako hondakin urak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu kolektorera bideratuko direla.

Plan Berezian zehaztu egin beharko da non egongo diren harrobiko instalazioetako isurketa urak dekantatzeko putzuak, eta ur ibilguetako zeintzuk puntutan egongo diren isurguneak; halaber, horiek ur ibilguen egoera ekologikoari nola eragingo dioten baloratuko da. Eragin hori ahalik eta txikiena izan dadin, behar diren neurri zuzentzaileak ezarriko dira. Instalazioak behar bezain handiak izango dira, eta aztertuko da ea handitu egin behar diren edota putzu berriak instalatu behar diren.

Mañaria ibaiaren ezkerreko ertzean metaturik dauden materialak kentzea aurreikusi beharko da Plan Berezian, uholde arrisku handia dagoelako bertan. Uraren Euskal Agentziak adierazi duenez, 100 urtean behingo uholdean urak hartzen duen zerrendatik kendu beharko dira metatutako materialak, gutxienez ere. Metatutako materialak kendu ondoren leku horretan ezarriko diren erabilerak zehazteko, oinarritzat hartuko da uholdeei buruz egin beharreko azterlan berrian kalkulatuko den uholde arriskua, URA agentziaren txostenak dioenez. Leku hori urpean geratzeko arriskuarekin bateragarriak diren erabilerak zehazteko, kontuan hartu beharko da Ur Jabari Publikoari buruzko Araudiaren 9. artikulua, 9/2008 Errege Dekretuaren bidez aldatua, bai eta URA agentziak egindako agiri hau ere: “Lurzorua erabiltzeko irizpideak, uholde arriskuaren arabera”.

medida correctora el Plan Especial deberá prever la conducción de las aguas residuales sanitarias generadas al colector de saneamiento del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia.

El Plan Especial deberá definir los espacios ocupados por las balsas de decantación de las aguas de escorrentía generadas en las instalaciones de la cantera y los puntos donde se producirá el vertido sobre los cauces adyacentes, valorando su afección sobre el estado ecológico. Se deberán contemplar las medidas correctoras necesarias para minimizar esta afección dando una suficiente dimensión a estas instalaciones y considerando la necesidad o no de su ampliación o la instalación de nuevas balsas.

El Plan Especial deberá contemplar la retirada de los acúmulos existentes en la margen izquierda del río Mañaria, dado el elevado riesgo de inundabilidad de la zona. Según informa la Agencia Vasca del Agua la retirada de los acúmulos será de al menos la franja de la T=100 años. Los usos a implantar en esta zona de retirada de los acúmulos deberán definirse en base al riesgo existente calculado en el nuevo estudio de inundabilidad que será preciso elaborar, según informa URA. Para definir los usos compatibles con la inundabilidad del área deberá tenerse en cuenta el Artículo 9 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico modificado por el Real Decreto 9/2.008, así como los “Criterios de uso del suelo en función de su grado de inundabilidad” elaborados por URA.

### *4.3. Lurpeko hidrologia*

Markomin Goikoa harrobia Aramotzeko Unitate Hidrogeologikoaren gainean dago. Harrobian ustiatzen den kareharri urgondarra guztiz iragazkorra da, eta akuiferoak kutsatzeko arrisku oso handia dauka. Urpeko urak ustiatzeko bi zundaketa daude harrobiaren barruan eta inguruan, Durangaldea hornitzen dutenak. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen ditu. Plan Berezian informazio hidrogeologiko zehatza jaso beharko da ustiatuko den kareharri masaren funtzionamenduari buruz, eta uraren kalitatearen gaineko balizko eraginak baloratu beharko dira ur hornidurarako zundaketetan, Mañaria ibaian eta dekantazio putzuaren ondoan dagoen ubidean. Kalitate kontuez gainera, unitate hidrogeologikoaren ur kantitatearen gaineko balizko eragina ere baloratu beharko da. EAEko urpeko urak zaintzeko sareari buruzko informazioa eskura dago webgune honetan: http://www.telur.es/redbas/

Plan Berezian zehaztu egin beharko da non dauden erabiltzen ari diren hornidura-zundaketak, kontrol piezometrikorako eta kalitate-kontrolerako zundaketak, eta gaur egungo, aldi baterako eta behin betiko ur puntuak. Ustiapen-zundaketen inguruetan eta planaren eremuaren barruan, kontuan hartu beharko dira babes perimetroak. Inguru horietan debekatu egingo dira urpeko urak kutsatu edo haien kalitatea eskastu dezaketen erabilerak.

### *4.4. Eremu babestuak*

Harrobiak muga egiten du Urkiolako Parke Naturalarekin, eta parkearen kanpoaldeko babes eremua Planaren

### *4.3. Hidrología subterránea*

La cantera Markomin goikoa se ubica sobre la Unidad Hidrogeológica Aramotz. Las calizas urgonianas que explota la cantera presentan una muy alta permeabilidad y muy alta vulnerabilidad a la contaminación de acuíferos. En el interior y entorno de la cantera existen dos sondeos de explotación de aguas subterráneas que abastecen a la comarca del Duranguesado gestionados por el Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia. El Plan Especial deberá incorporar información hidrogeológica detallada del funcionamiento de la masa de calizas que va a explotar, deberá valorar las posibles afecciones en la calidad de las aguas sobre los sondeos de abastecimiento, sobre la descarga sobre el río Mañaria y sobre la descarga sobre el canal existente junto a la balsa de decantación. Además de los aspectos de calidad se deberá valorar la posible afección sobre la cantidad de agua de la Unidad Hidrogeológica. Existe información disponible sobre la red de vigilancia de aguas subterráneas de la CAPV en: http://www.telur.es/redbas/

El Plan Especial deberá ubicar los sondeos de abastecimiento en uso, los sondeos de control piezométrico y de calidad y los puntos de agua existentes, temporales y permanentes. En el entorno de los sondeos de explotación y dentro del ámbito del plan se deberán considerar perímetros de protección donde se prohíban usos que puedan contaminar o afectar a la calidad de las aguas subterráneas.

### *4.4. Áreas protegidas*

La cantera colinda con el Parque Natural de Urkiola entrando su zona periférica de protección en el interior del ámbito del

esparruan sartzen da. Parkearen eta haren kanpoaldearen mugak Plan Berezian jaso behar dira. Planaren aurreikuspenak bateragarriak izan behar dira Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planeko araudiarekin. Horretarako, iraunkortasunari buruzko txostenean gai hori aztertu beharko da.

Plan. La delimitación del Parque y su zona periférica debe ser recogida en el Plan Especial. Las previsiones del plan deben ser compatibles con la normativa del PRUG del Parque Natural de Urkiola para lo cual el Informe de Sostenibilidad deberá analizar la cuestión.

Parke Naturala, bestalde, Natura 2000 Sareko “Urkiola” BILa da. Plan Bereziak ez du zerikusirik BILaren kudeaketarekin, eta espazioaren gaineko ondorio zuzenak eta zeharkakoak izan ditzake. Beraz, BILean izan dezakeen eragina egokiro ebaluatu beharko da, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45.4 artikuluan ezarritako moduan. Horretarako, aztertu egingo da zer nolako ondorioak izango dituen harrobiko jarduerak espazio hori BIL izendatzerakoan kontuan hartu ziren habitaten eta espezieen gainean. Batez ere, haitzetako hegazti harraparien populazioen gaineko eragina aztertu beharko da, bereziki, Mugarra mendian habia egiten duen sai zuri bikotearen gainekoa.

Por otra parte el Parque Natural constituye el LIC “Urkiola” incluido en la Red Natura 2.000. El Plan Especial es un plan que no tiene que ver con la gestión del lugar y que puede tener efectos directos e indirectos sobre el espacio. Por tanto se deberá realizar la correcta evaluación de las repercusiones en el lugar según establece el Artículo 45.4 de la Ley 42/2007 del Patrimonio Natural y la Biodiversidad. Para ello se analizarán las repercusiones de la actividad de la cantera sobre los hábitats y las especies cuya presencia en este espacio ha supuesto su designación como LIC. En especial se deberá analizar la afección sobre la población de rapaces rupícolas y especialmente sobre la pareja de alimoches que anida en el monte Mugarra.

Halaber, Plan Berezian aintzat hartu beharko da eremuaren iparraldeko muturrean Mendigain-Pasariuntza onura publikoko mendia dagoela.

Asimismo el Plan Especial deberá tener en cuenta la presencia del MUP Mendigain-Parasiunza en el extremo norte del área.

### *4.5. Korridore ekologikoak*

Eusko Jaurlaritzak EAEko eskalan definitutako pasabide ekologikoen sareko leuntze-eremu batean dago harrobia, eta landare zein animalia espezieei hedatzen eragozten dien hesia da. Mañaria ibaiaren ibilgua lehengoratzeko jarriko diren neurriek hobetu egin behar dute hark ibai-korridore gisa daukan funtzionalitatea. Harrobia lehengoratzeko neurrietan

### *4.5. Corredores ecológicos*

La cantera se ubica en una zona de amortiguación de la red de corredores ecológicos a escala de la CAPV definida por el Gobierno Vasco y constituye una barrera para el trasiego de fauna y flora. Las medidas a adoptar de restauración del cauce del río Mañaria han de suponer una mejora de la funcionalidad del mismo como corredor fluvial. Las medias de

aintzat hartu beharko da alderdi hori, diseinuari dagokionez.

### *4.6. Fauna*

Ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenean beren beregi faunari buruzko atal bat sartu beharko da, interesik handieneko animalia espezieak eta komunitateak aztertuko dituena. Hala, honako animalia komunitate hauek deskribatu beharko dira: Mañaria ibaiaren ibilguari lotutakoa (ibilgu hori bisoi europarrarentzako interes bereziko eremua da); harrobiaren inguruetako eta harrobi barruan jada lehengoratuta dagoen aldeko kareharrizko haitzei lotutako animalia komunitatea; harrobiko barrunbeetan egon litezkeen kiropteroak; harrobiaren inguruko artadietan egon litezkeen basoko hegazti harrapariak eta basoko haragijale txikiak. Iraunkortasunari buruzko txostenean baloratu egin beharko da Plan Bereziak zer nolako eragina duen komunitate horietan, batez ere haitzetako hegazti harraparietan, txosten honen 4.4 atalean ezarri bezala.

### *4.7. Flora eta landaredia.*

Landarediaren mapa aurkeztu beharko da, behar besteko eskalakoa, bai Plan Bereziaren eremuko unitateak bai inguruetan daudenak kartografiatuko dituena. Landarediaren mapak habitaten mapa ere egiteko balio behar du. Mapa hori kontuan hartu beharko da Planaren eremuaren barne-antolamendurako. Intereseko landaredia duten aldeak babestu eta lehengoratu beharreko aldeak izango dira.

Iraunkortasunari buruzko txostenean berariaz aztertu beharko dira planaren eremuan dauden landare espezie

restauración de la cantera deberán considerar este aspecto en su diseño.

### *4.6. Fauna*

El informe de sostenibilidad ambiental deberá incluir un apartado específico sobre fauna centrado en las especies y comunidades faunísticas de mayor interés. Así se deberán describir las comunidades faunísticas siguientes: la ligada al cauce del río Mañaria, que constituye Zona de Interés Especial para el visón europeo, la comunidad de fauna rupícola ligada a los paredones calizos del entorno de la cantera y de la propia área ya restaurada en el interior de la cantera, la posible presencia de quirópteros en las cavidades de la cantera, la posible presencia de rapaces forestales y pequeños carnívoros forestales ligados a los encinares del entorno de la cantera. El Informe de Sostenibilidad deberá valorar la incidencia del Plan Especial sobre estas comunidades, en especial sobre las rapaces rupícolas, tal como se establece en el apartado 4.4. de este informe.

### *4.7. Flora y vegetación.*

Se deberá aportar un mapa de vegetación a escala suficiente que cartografíe las unidades existentes tanto dentro del ámbito del Plan Especial como en el entorno. El mapa de vegetación deberá servir para elaborar también un mapa de hábitats. Este mapa deberá tenerse en cuenta para la ordenación interna del ámbito del Plan, considerando las áreas con presencia de vegetación de interés como zonas a proteger y restaurar.

El Informe de Sostenibilidad deberá incorporar un análisis específico de la presencia de flora invasora en el ámbito

inbaditzaileak. Haien mugaketa kartografikoa egingo da, harrobiko instalazioak kolonizatzeko duten ahalmena baloratuko da, eta sakabanatzen ez uzteko prebentzio neurriak zehaztuko dira.

del plan, su delimitación cartográfica, valoración del potencial de colonización que existe sobre las instalaciones de la cantera y definir medidas preventivas para evitar su propagación.

### *4.8. Ondare kulturala*

Plan Bereziaren eremuan badira zenbait barrunbe behinola miatu zirenak, euren kultur ondarearen edukia ezagutzeko. Plan Bereziari aurretik egin zitzaion ingurumen-tramitean sortutako informazioa erantsi beharko zaio iraunkortasun-txostenari, hau da, jarduketa-aurrealdeen eta kanpo-perimetroaren ebaluazio arkeologikoari buruzko txostena erantsi beharko zaio, eta txosten horrek gaur egun indarrean dirauen baloratu beharko da. Plan Berezian aintzat hartu beharko dira barrunbe horiek, eta, behar izanez gero, zuzenketa neurriak erantsiko dira, produkzio espazioen mugaketari dagokionez. Planaren inguruetan egon daitezkeen kultur ondareko elementuei eta harrobiko jarduerak horietan izan dezakeen eraginari buruzko informazioa ere gehitu beharko da.

### *4.8. Patrimonio cultural*

En el interior del Plan Especial existen varias cavidades que fueron prospectadas para conocer el contenido de su patrimonio cultural. El Informe de Sostenibilidad deberá incorporar la información que se generó en el trámite ambiental anterior del Plan Especial, es decir, el informe de evaluación arqueológica de los frentes de actuación y perímetro exterior y valorar su vigencia en la fecha actual. El Plan Especial deberá considerar la presencia de dichas cavidades e incluir las posibles medidas correctoras en cuanto a delimitación de espacios productivos, que se puedan derivar. Asimismo se deberá incluir información de los elementos del patrimonio cultural que puedan existir en las inmediaciones del plan y las posibles afecciones que se pudiesen derivar de la actividad de la cantera.

### *4.9. Lur kutsatuak*

IHOBE sozietate publikoak igorritako informazioaren arabera, Plan Bereziaren eremuaren barruko lurzati batzuk lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan daude. Metalik eta energiarik gabeko mineralak erauzteko jarduera, gainera, lurzorua kutsa dezakeen jardueratzat jotzen da Lurzoruaren Kutsadura Eragozteko eta Zuzentzeko 1/2005 Legearen II. eranskinean. Planaren eremuan hormigoi lantegia ere badago, baita mekanika lantegiak eta erregaien

### *4.9. Suelos contaminados*

Según la información remitida por la Sociedad Pública IHOBE existen parcelas incluidas en el inventario de suelos que soportan o han soportado actividades contaminadoras del suelo dentro del ámbito del Plan Especial. Además la actividad de extracción de minerales no metálicos ni energéticos se incluye en el Anexo II de la Ley 1/2.005 para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, como una actividad potencialmente contaminante del suelo. En el ámbito del Plan se

biltegia ere. Jarduera horiek lurzorua kutsa dezakete. Planaren eremuan badira lurpeko erregai biltegi bi eta aireko beste bat. Lurpeko biltegiek lurzorua eta lurpeko urak kutsatzeko arriskua dute eta ezin da arrisku hori eraginkortasunez kontrolatu, irisgarritasun ezagatik. Lurpeko bi biltegiak lurraren gainean kokatzeko lekua proposatu beharko da Plan Berezian, eta behar diren zuzenketa neurriak jarriko dira, biltegiak erabiltzean edo istripuen ondorioz erregai isurketarik gerta ez dadin. Halaber baloratu egin beharko da ea lantegien edo erregai biltegien kokalekua egokia den, lurzoruaren eta lurpeko uren kutsaduraren ikuspuntutik.

encuentra también la planta de producción de hormigón así como zona de talleres mecánicos o almacenamiento de combustibles, actividades que puede provocar contaminación del suelo. Dentro del ámbito del Plan, existen dos depósitos de combustible enterrados, así como otro depósito aéreo. La existencia de depósitos enterrados supone un riesgo de contaminación del suelo y de las aguas subterráneas que no es posible controlar eficazmente por su inaccesibilidad. El Plan Especial deberá proponer una ubicación sobre el suelo para los dos depósitos enterrados adoptando las medidas correctoras pertinentes para evitar derrames y vertidos por efecto de la operación con los mismos o por accidentes. Asimismo deberá valorar si la ubicación de talleres o almacenamientos de combustibles es adecuada desde el punto de vista de la contaminación del suelo y de las aguas subterráneas.

Gaur egungo biltegiak lurpetik ateratzeko lanak, toki horietako lurzoruaren kalitatea aztertzeko analisiak, eta biltegiek eragindako kutsadura garbitzeko beharrezkoak izan litezkeen neurriak, horiek denak Ingurumen Sailburuordetzak ontzat eman beharko ditu.

La obra de desenterrado de los depósitos existentes y análisis de la situación de la calidad del suelo en esos lugares así como la posibles medidas que deban adoptarse para eliminar posible contaminación generada por los depósitos deberá contar con la aprobación de la Viceconsejería de Medio Ambiente.

Plan Bereziaren iraunkortasunari buruzko txostenean lurzoruaren balizko kutsadurari buruzko atariko azterlana jaso beharko da. Horren barruan, erregai biltegien, lantegien eta erregai, lubrifikatzaile eta abarren biltegien kokalekuen azterketa historikoa egin beharko da. Halaber, egon litekeen kutsaduraren eta hura ingurunera eta pertsonengana heltzeko balizko bideen lehenengo balorazioa egin beharko da “de visu”.

El Informe de Sostenibilidad del Plan Especial deberá incorporar un estudio previo de la posible contaminación del suelo, incluyendo un análisis histórico de las ubicaciones de los depósitos de combustible, talleres y lugares de almacenamiento de combustibles, lubricantes, etc. Se deberá asimismo hacer una primera valoración “de visu” de la posible contaminación generada y posibles vías de transmisión hacia el medio y las personas.

### *4.10. Zarata eta airearen kalitatea.*

Markomin Goikoa harrobia zarata iturria da, zaratari buruzko araudi sektorialean ezarrita dagoenez. Plan Berezian baloratu egin beharko da harrobiko jarduerak gaur egun duen eragin akustikoa, eta barne-antolamendu egokia proposatu beharko da, harrobiaren inguruko egoera akustikoa ahalik eta gehien hobetuko duena, arreta berezia emanez hurbilen dauden etxebizitzei. Zaratak Urkiolako Parke Naturalean eta BILean duen eragina ere baloratu beharko da, baita habia egiteko garaian haitzetako hegazti harraparietan eta beste espezie kaltebera batzuetan duen eragina ere. Harrobi horretako zaratak BI-623 errepideko eta Mutxate harrobiko zaratarekin batera izan dezakeen eragin metatua kontuan hartu beharko da. Harrobiaren inguruan errepideak sortzen duen zaratari buruzko informazioa erantsi da.

Zonifikazio akustikoari, kalitate helburuei eta zarata emisioei buruzko 1.367/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Plan Bereziaren eremua zona akustikotan banatu beharko da, errege dekretu horren 5. artikuluan eta V. eranskinean definitutako eremu akustikoak kontuan hartuz.

Harrobiko jarduerak airearen kalitatean duen eraginari buruzko informazioa jaso beharko da iraunkortasunari buruzko txostenean, batez ere hurbileko etxebizitza guneei dagokienez. Kontuan hartu beharko da airearen kalitatearen arloko araudia, eta Plan Bereziaren eremuko jarduerei aplikatu beharko zaie. Plan Berezian aintzat hartuko dira araudi horren aplikazioaren ondorioz ezarri beharreko zuzenketa neurriak.

### *4.10. Ruido y calidad el aire.*

La cantera Markomin goikoa es un emisor acústico, según se establece en la normativa sectorial del ruido. El Plan Especial deberá valorar la incidencia acústica de la actividad de la cantera en la actualidad y proponer una ordenación interna que mejore, en la medida de lo posible, la situación acústica en el entorno de la cantera, con especial atención a las viviendas más cercanas. Asimismo se deberá valorar la incidencia del ruido ambiental en el Parque Natural y LIC Urkiola y su posible incidencia en especies sensibles como las rapaces rupícolas en época de nidificación. Se deberán considerar los posibles efectos acumulativos generados por la emisión de la carretera BI-623 y la cantera Mutxate. Se aporta información del ruido ambiental generado por la carretera en el entorno de la cantera.

Atendiendo a lo establecido en el Artículo 13 del Real Decreto 1.367/2.007 sobre zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas, se deberá realizar la zonificación acústica del ámbito del Plan Especial, considerando las Áreas Acústicas definidas según el Artículo 5 y el Anexo V del citado Real Decreto.

El informe de sostenibilidad deberá incorporar información acerca de la incidencia sobre la calidad del aire de la actividad de la cantera, sobre todo en cuanto a la incidencia sobre las zonas habitadas cercanas. Se deberán considerar la normativa en materia de calidad el aire y su aplicación a las actividades que se dan en el interior del Plan Especial. Éste tendrá en cuenta las medidas correctoras que se deriven de la aplicación de la citada normativa.

### *4.11. Ingurumen azpiegiturak*

Kontuan hartu beharko dira harrobiaren eremuan hondakin urak biltzeko gaur egun dauden sistemak; zehatzago, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektore nagusia.

### *4.11. Infraestructuras ambientales*

